



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

.....
**Hiri hondakin kudeaketa zerbitzuak
emateagatiko tributu izaera ez duten
ondare-prestazio publikoak
arautzeko ordenantza**
.....

2024

HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TRIBUTU IZAERA EZ DUTEN ONDARE-PRESTAZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO ORDENANTZA. 2024

XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA IZAERA

1. artikulua. Ordenantza honek hondakinen kudeaketa zerbitzuak emateagatiko tarifak arautzen ditu, eta Iruñerriko Mankomunitatean integraturik dauden Udalen lurralde barrutietan aplikagarria izanen da, baldin eta zerbitzua egiazki burutzen bada.

Estatutuen 9. artikulua araberakoan, Mankomunitateak bere zerbitzuak udal eremuaren zati batean – Kontzeju batean edo zenbaitetan– ematen ditueneko kasuetan, honako Ordenantza zerbitzu-prestazioa egiten deneko Kontzejuen eremuetan soilik izanen da aplikagarria.

Zerbitzu horiek Iruñerriko Zerbitzuak SA (IZSA) sozietateak eman eta kudeatzen ditu, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatearen arteko harremanen erregelamenduan ezarrita dagoenaren arabera.

2. artikulua. Hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuak emateagatiko tarifak tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak dira.

EMANDAKO ZERBITZUAK

3. artikulua. Ematen diren zerbitzuak, Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzu eta jardueren erabilpena egin edo egin ahal izatearen kariaz zehazten dira. Direlako zerbitzu eta jarduerak, dagozkien tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak sorrarazten dituztenak, ondoan zerrendatzen diren hauek dira, hori guztia Iruñerriko Mankomunitatean hondakinak kudeatzea arautzen duen Ordenantzarekin bat eginez:

1. Etxeko hondakin solidoen nahitaezko harrera, bilketa, garraioa eta ondoko balioztapen edo hustuketa zerbitzuen eskuragarritasuna edota erabilpena, Hiri Hondakinei buruzko Legearen eta Iruñerriko Mankomunitatearen HHS-en Kudeaketa Arautzeako Ordenantzaren kariaz sortzen direnak.

2. Ondoko zerbitzuen prestazioa:

- a) Etxeko hondakinak balorizatu eta ezabatzeko instalazioetan hondakinak hartzea.
- b) Hildako etxeko animaliak jasotzea, garraiatzea eta deuseztatzea.
- c) Ekitaldietarako edukiontzia eta ontziak kokatu, kendu eta deskargatzea.
- d) Obra, ekitaldi eta abarrengatik edukiontzia eta barandak kendu/lekualdatzea eta berriro jartzea.

ORDAINTZERA BEHARTUAK

4. artikulua. 1. 3. artikulua 1. atalean definitutako zerbitzuei dagozkien tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak ordaintzera beharturik daude pertsona fisiko zein juridikoak, hala nola egoneko herentziak, ondasun elkargoak eta beste entitateak, izaera juridikoa izan gaberik ere, baldin eta, zerga ezar dakiekeen unitate ekonomiko edo ondare berezitua osatzen badute, edozein tituluren kariaz etxebizitza, lokal, establezimendu edo zentrorik erabiltzen badute, eta haien onura edo mesederako zerbitzua modu orokor eta beharrezkoan ematen edo prestatzen bada. Onuraduna ezaguna ez den kasuetan, direlako higiezinaren jabeak izanen dira ordaintzera behartuak, haiek kuotak dagozkien onuradunengana berrezarri ahal dituztelarik.

2. 3.2 artikuluan ezarritako prestazioak direlakoetan, ordaintzera behartuak izanen dira honakoak:

3.2.a) artikulua araberakoan emaniko zerbitzuak. Hondakinak Tratamendu Zentroan jasotzea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

3.2.b) artikulua araberakoan emaniko zerbitzuak. Zerbitzua ematea eskatzen dutenak. Ez dira zerbitzu honen ordaintzera beharturik egonen Mankomunitatean integratuta dauden entitate lokalak.

3.2.c) artikulua araberakoan emaniko zerbitzuak. Ekitaldi bakoitzerako zerbitzua eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak. Ez dira behartuta egongo zerbitzu hau ordaintzera Mankomunitatearen barnean dauden toki erakundeak.

3.2.d) artikulua araberakoan emaniko zerbitzuak. Edukiontzia kentzeko eta berriro jartzeko zerbitzua eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak. Ez dira behartuta egongo zerbitzu hau ordaintzera Mankomunitatearen barnean dauden toki erakundeak.

KUOTAREN OINARRIA

5. artikulua. 1. 3. artikulua 1. atalean aipaturiko zerbitzuaren kasurako, kuota zehazten deneko oinarria, era orokor batez, I. eranskinean ageri diren erabilpenaren arabera tarifa multzoetako ondasun higiezin balioren batura izanen da, fakturaz ari den ekitaldiko une bakoitzean Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan ageri denean (erregistro-balioa).

Ondasun higiezin bat delako Erregistroan balioztaturik ez dagoen kasuan, 7.1 b) artikuluan ezartzen denari jarraituko zaio.

“Hondakin sortzaile handien” kasuan, halakotzat hartuko baitira bi edukiontzi edo gehiago behar izaten dituzten ordaintzaileak, oinarria astero sortutako hondakinen bolumenari dagokiona atxikiko zaie.

Bilketa konpaktazio gabeko kaxa bitartez egiten den kasuetan oinarria biltzeko diren kaxen kopuruarekin bat etorriko da.

2. 3. artikulua 2,a) atalean aipaturiko zerbitzuaren kasurako, oinarria isurkinaren pisua izanen da.

3. 3. artikulua 2,b) atalean aipaturiko zerbitzuaren kasurako, oinarria hildako animalia ale bezainbesteko izanen da.

TARIFAK

6. artikulua. 1. 3.1 artikuluan bildua den zerbitzuaren kasuan, eta erabilerari dagokion koefizienteaz zuzenduriko bere oinarriaren gainean, I. Eranskinean erabilera bakoitzarentzat ezarri den tarifa aldakorra aplikatuko da, kuotaren zati aldakorra izanik. Hau ez zaie aplikagarri “hondakin sortzaile handiei”.

2. 3.2 artikuluan aipatzen diren zerbitzuen kasuan oinarriei Eranskineko D, H, I eta J ataletan ageri diren tarifak aplikatuko zaizkie.

KUOTA

7. artikulua. 1.a) 3.1 artikuluan aurreikusten den zerbitzurako aterako den kuota osoa, zati aldakorra eta I. Eranskinean ageri den kuota finakoaren batura izanen da. Ezin izanen da ezein kasutan ere kuota osoa erabilpen bakoitzeko kuotaren zenbatekoa baino handiagoa izan.

“Hondakin sortzaile handiek” kuota bakarra ordainduko dute, zenbatekoak I. Eranskinean agertzen baitira.

1.b) Zergapeko hiri-unitateei Hiriko Lurralde Kontribuzioaren ondorioetarako oinarri zergagarri atxiki ez zaien kasuan, aterako den kuota, tarifa aldaezina eta Eranskinean ageri den tarifa aldakorraren batura izanen da, ezarritako erabilpenen arabera.

2. 3.2 artikuluan bilduak diren zerbitzuendako kuota aurreko artikuluan aipatzen diren tarifak aplikatzearen karia sortzen dena izanen da.

8. artikulua. Kasu bakoitzean aterako den kuotari legeek une bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak aplikatuko zaizkio, haiek ezartzen dituzten era eta baldintzetan.

SORTZAPENA

9. artikulua. 1. 3.1.) artikuluan aipatzen diren zerbitzuendako ezarritako tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak lauhileko natural bakoitzeko lehenengo egunean sortuko dira.

Zerbitzua jasotzen hasten diren erabiltzaileentzat, zerbitzua jasotzen hasten direneko egunean gertatuko da sortzapena, nolaz eta ordaintzera beharturik dagoenak bakarrik fakturazio-epaia bukatzen den arteko egunei dagokiena ordain dezan.

2. Gainerako beste zerbitzu guztiengatik ezartzen diren tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak interesdunak eskaera egiten duen momentuan edo zerbitzuaren prestazioa burutzen denean (3.2. b art.).

ORDAINARAZPENA

10. artikulua. Ordenantza honen bidez erregulatzen diren tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak hilabeteko edo lau hilabeteko alditan ordainaraziko dira.

DIRU-BILKETA

11. artikulua. 1. 3.1. artikuluan aurreikusten diren zerbitzuak emateaz sortzen diren zorrak "jakinerazpen gabekotzat" kontsideratuak izanen dira, zerga-ordaintzaile errolda batetatik sortuak direlako.

2. Ordenantza honetan artikuluan aurreikusten diren tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoek sortzen dituzten zorrak, behin eta 10. artikulua aurreikusitakoaren arabera ordainaraziak, ordaindu behar direneko lauhileko naturaleko lehen hilabetearen lehenbiziko egunean jakinarazitzat emanen dira. Data horretatik aurrera hilabeteko epea kontatzen hasiko da, ordainketa egiteko.

3. Ezarritako epean ordainduak ez diren tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoei dagozkien zenbatekoak legezko urteko interes-tasa aplikatuzetik sortzen den kopuruan gehituak izanen dira.

Korrituei dagokien zenbatekoaren sortzapena borondatezko ordainketa epea amaitzen den egunean gertatuko da, eta borondatezko ordainketa epea amaitzen den hilabetearen ondokoaren azken egunetik aitzina ordainaraziko dira.

Berantze-korrituak ez zaizkie aplikatuko beren jarduerak lege-ordenamendu pribatuari egokitu behar duten Administrazio Publiko, Erakunde Autonomo eta zuzenbide publikoko Entitateen zorre.

12. artikulua. Zorren ordainketa ondoko eran bete ahal izanen da:

a) Zorren ordainketa helbideratu duten subjektu pasiboendako, beraiek seinalatutako Banku edo Aurrezki Entitatean eta kontuan zordunketa bidez.

b) Zorren ordainketa helbideratu ez duten subjektu pasiboendako, edota helbideratua izan arren edozein arrazoirengatik zorrak bete gabe geratu diren kasuetan, IZSAren Bulegoetan.

13. artikulua. Nahiz eta 10.1 artikuluan ezarritakoa hala izan, eraikina erabiltzearen eskubidea deuseztatzeak sortzaren eskubideak ezabatuko ditu, eta, hala, iraungipen dataz ondorengo egunei dagozkien ordainarazitako eta ordaindutako tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak diruak ordaintzera beharturik dagoenari itzuli beharko zaizkio.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean ordenantza hau, I.I.A, I.I.C, I.I.G, I.I.H.4 eranskinetan eta II. eranskinean araututakoa izan ezik, horiek 2024ko maiatzaren 1ean hartuko baitute indarra.

I. ERANSKINA

I. HONDAKINEN KUDEAKETA ZERBITZUA, NAHITAEZKO HARRERAPEKOA

A. ERREGIMEN OROKORRA –URTEKO TARIFAK–ZENBATEKOAK EUROTAN

ERABILPENAK	KOEF. ZUZ.	Kuotaren oinarriari aplikatzeko tarifa aldakorra	Kuota finkoa	Kuota maximoa
1 (***)	1	%0,134	57,65	156,43
4. Etxebizitzak (*) 96. Estudioa 92. Landetxea (**)				
2	2	%0,249	321,65	1.063,31
9. Lokal komertzialak, elikadura izan ezik (finantza-entitateak barne)				
3	4,25	%0,262	337,74	1.996,87
9. Elikadurako lokal komertzialak 30. Kasinoa 34. Festa aretoa 43. Jatetxea 44. Kafetegia, taberna 42. Egoitza 55. Ospitalea 56. Klinika 59. Kuartelak 60. Kartzelak				
4	1	%0,262	337,74	1.996,87
41. Hotela				
4.1	1	%0,262	156,54	1.406,97
45. Ostatatze-jarduera (ostatua/aterpea/etxebizitza turistikoa/landetxea/kanpina)				
5	1	%0,262	337,74	4.159,98
10. Industria-lokalak 12. Industria-nabea 13. Industria-biltegia (****) 14. Aldagelak-jantokia 61. RENFEren geltokia 62. Bodega kooperatiboa 87. Garajea, gelak 90. Hornitegia 93. Laborategia 94. Autobusen geltokia				
6	1	%0,178	136,33	1.225,30
17. Bulegoak 102. Biltzeko lokalak (txokoak, adingabeen aisia-lokalak, hainbat kultutarakoak, kultura-elkarteak...) 104. Erabilera partikularreko biltegia (****)				
7	1	%0,178	55,01	302,91
7. Erabiltzen ez diren etxabeak 103. Lokal itxia				
8	0,25	%0,202	63,17	302,91

18. Bulego publikoa
 19. Udaletxea
 20. Auzitegia, epaitegia
 27. Liburutegia
 28. Museoa
 29. Kultura etxea
 49. Kulturako erlijio etxeak edo eguneroko erabilpenekoak
 91. Alderdi politikoen egoitzak

9	1	%0,202	265,38	1.116,47
---	---	--------	--------	----------

21. Unibertsitatea
 22. Institutua
 23. Lanbide eskola
 24. OHO eskola
 25. Kolegio ikastetxea
 26. Haurtzaindegia
 31. Antzokia
 32. Zinema-aretoa
 33. Auditoriuma
 35. Zezen-plaza
 36. Estadioak
 37. Kiroldegiak
 53. Babes-etxeak
 46. Elkarateak
 54. Komentuak
 57. Anbulatorioa
 58. Sorostokia

(*) Koeffiziente zuzentzaileak udalerrika aplikatuz (II. Eranskina).

(**) Tarifa hori izanen da baldin eta hondakinen bilketa egiten bada 300 metroko edo gutxiagoko distantzia batean, jabetza pribatuaren eta publikoaren arteko mugatik.

(***) 95 euroko urteko kuota minimoa aplikatuz.

(****) Industria-biltegitzat hartuko dira Lurralde Aberastasuneko Erregistroan erabilera hori izendatuta dutenak eta bai trastelekuak alokatzea dutenak jarduera, erregistro horretan izendatuta duten erabilera gorabehera.

(*****) Erabilera partikularreko biltegitzat hartuko dira jarduera profesional eta ekonomikoetako salgaiak edo tresnak biltegitratzeko baliatzen diren eta 200 metro koadroko edo gutxiagoko azalera duten higiezinak, establezimendu fisikorik ez dutenak eta ordaintzera behartuta dagoena pertsona fisikoa dena. Halaber, erabilera partikularreko biltegitzat hartu ahal izango dira, lokal itxi moduan edo erabilerarik gabeko etxabe moduan agertu arren, urte bateko epean lauhilekoko 10 m³-ko batez besteko kontsumoa baino handiagoa erregistratzen den higiezinak.

B. DIRU-BEHAR HANDIKO EGOERAN DAUDEN ZERBITZU-ERABILTZAILEENTZAKO KUOTA BEREZIA.

Ordenantza honetan arautzen den etxebizitza-erabilerari aplika dakioken prezioari dagokion kuota osoa era orokorrean aplikagarria den kuotaren %10 aplikatetik sortzen den kantitatea bezainbestekoa izango da, kasu hauetan:

- a) Kontratuaren titularra Errenta Bermatuaren edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren onuraduna denean.
- b) Kontratuaren titularra kotizazio gabeko erretiro-pentsioen gaineko kenkariaren zenbatekoaren ordainketa aurreratuaren onuraduna denean. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Legearen Testu Bateratuaren 68 bis artikuluan eta 110/2017 Foru Dekretuan, abenduaren 13koan, kenkari horien ordainketa aurreratua arautzen duenean, araututa dago, edo horiek indargabetuz gero, ordezten dituen araudian.
- c) Kontratuaren titularra Inklusioaren, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioaren arreta humanitarioko eta nazioarteko babeserako harrerako programen eskatzailea edo onuraduna denean. Kasu honen barnean daude agindu hauetan aurreikusitako aldi baterako babeserako eskatzaileak: PCM/169/2022 Agindua, martxoaren 9koa, zeinaren bidez garatzen baita Ukrainako gatazkak ukitutako pertsonen aldi baterako babesa aitortzeko prozedura, eta PCM/170/2022 Agindua, martxoaren 9koa, zeinaren bidez kaleratzen baita Ministroen Kontseiluaren 2022ko martxoaren 8ko Akordioa. Akordio horrek luzatu egiten du 2022/382 (EB) Betearazpen Erabakia betez, 2022ko martxoaren 4ko Kontseiluarena, emandako aldi baterako babesa Ukrainako gatazkak ukitutako pertsonentzat, Espainian babesa aurki dezaketenentzat.

Eskatzaileek ondokoak aurkeztu beharko dituzte:

1. Eskaera.
2. Errenta bermatuaren, bizitzeko gutxieneko errentaren edo kotizazio gabeko erretiro-pentsioen kenkariaren zenbatekoaren ordainketa aurreratuaren onuraduna dela egiaztatzen duten agiriak, Pertsona fisikoen errentari buruzko zergaren Foru Legearen testu bategina onartzen duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 68. bis artikuluan araututa daudenak, eta bai 110/2017 Foru Dekretuan, abenduaren 13koan, kenkari horien ordainketa aurreratu arautzen duenean, edo, baliogabetuz gero, haiek ordeztzen dituen araudian onuraduna dena.
3. Inklusioaren, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioaren arreta humanitarioko eta nazioarteko babeserako harrerako programen eskatzailea edo onuraduna dela egiaztatzen duten agiriak.
4. Ukrainako gatazkak ukitutako pertsonen kasuan, babesa Espainian aurkitu dutenen kasuan, aldi baterako babeserako dagokien eskaera, eta, baliabide eskasia egiaztatzeko, baliabiderik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena.
5. titularraren eta prestazioaren onuradunaren erroldatze-ziurtagiria edo udal-erroldako bizikidetzaziurtagiria.

Adierazitako agiri horiez gain, Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietateak eskatzaileari dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio, eskatzaileak adierazitakoa behar ekonomikoko bere benetako egoerarekin bat datorrela egiaztatzeko helburuarekin.

Nolanahi ere, tarifa honen onuraduna izango da ordenantza honetan araututako tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak ordaindu behar dituen edo haren ezkontidea edo bizikidetzaren harreman analogoko pertsona, eta soil-soilik aplikatuko zaio familia-unitatearen ohiko etxebizitzari.

Tarifa hau 12 hilabeteko aldi baterako ematen da. Ordaindu behar duen obligaziodunari prestazioa ematea aldi luzeago baterako ezarri den kasuetan, tarifa emateko epea egokitu egingo zaio prestazioa ematearen epeari. Iruñerriko Zerbitzuak SAK, edozein unetan, tarifa hau emateko eskatzen diren betebeharrak mantentzen direlako egiaztapena egin ahal izango du, eta baldintzok betetzeari utzi edo egiaztapenean eskaturiko agiriak ekartzen ez dituzten onuradun guztiei (hori egiteko emandako epeak igaro direnean) tarifa osoa aplikatuko die.

Ordenantza honetan arautzen diren tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoetatik edozeini dagokion kuota osoa era orokorrean aplikagarri den kuotari %10 aplikatuz ateratzen dena bezainbestekoa izango da, ordaindu behar duena Gobernuaren kanpoko erakundea denean, eta zerbitzua zuzenki egintza publikorakoa denean, irabazteko asmorik gabekoa, eta horren xedea bere asmoetarako laguntzak biltzea denean.

C. SORTZAILE HANDIAK

Zerbitzuaren erabilzaileak hondakinen 12 m³ edo gehiagoko kantitatea sortzen badu astean, ondoan aipatzen diren urteko kuotak aplikatuko zaizkio (balio katastrala edozein delarik ere ezarriko direnak).

Astean 12 m ³ -raino	4.159,98 euro
12 m ³ -tik aurrera, asteko m ³ bakoitzeko	513,07 euro/unitatea

D. EDUKIONTZIEN ALDI BATERAKO ERABILPENEA

	EDUKIONTZIA JARRI/JASOTZEA	DESKARGA BAKOITZEKO
3.200 l-ko edukiontzia	142,17 euro	56,91 euro
2.400 l-ko edukiontzia	99,52 euro	42,64 euro
1.000 l-ko edukiontzia	39,81 euro	18,49 euro
240 l-ko edukiontzia	13,52 euro	7,08 euro
Inauste eta lorezaintzako edukiontzia (7 m ³)	100,00 euro	

120 l-ko edukiontzien uztea 8,13 euro eguneko fakturatuko da.

E. OBRA, EKITALDI ETA ABARRENGATIK EDUKIONTZIAK ALDI BATERAKO KENTZEA/LEKUALDATZEA

	KENTZEA ETA BERRIRO JARTZEA	LEKUALDATZEA ETA BERRIRO JARTZEA
Edukiontzien gune estandarra (5 edukiontzi)	226,80 euro	113,40 euro
Edukiontzien gune berezia (5 edukiontzitik gora)	453,60 euro	170,64 euro
Baranda laburra	33,26 euro	
Baranda luzea	59,16 euro	

F. SORTZAILE HANDIAK-TRINKOTU GABEKO KAXA HERTSIREN BILKETA

10 m ³ arte	284,36 euro/unitate/bilketa eguna
5 m ³ arte edo zatia	142,17 euro/unitate/bilketa eguna

G.KATASTRO BALIOZTAPENIK EZEAN

Higiezinari balio katastralik atxiki ez zaien kasurako, koadro orokorreko jarduera multzoei dagozkien ondoko kuota aldakorak ezarriak dira.

Kuota 1	61,75 euro
Kuota 2	400,78 euro
Kuota 3	1.051,16 euro
Kuota 4	1.051,16 euro
Kuota 4.1	288,71 euro
Kuota 5	815,02 euro
Kuota 6	186,03 euro
Kuota 7	101,20 euro
Kuota 8	144,19 euro
Kuota 9	420,82 euro

H. TARIFA GUZTIEI DAGOZKIEN XEDAPENAK.

1. Hondakin unitate sortzaile bakarrean erabilpen mota batzuk sar daitezkeen kasuetan, katastro unitate nagusizat hartu denaren erabilpen kuota finkoa aplikatuko da. Nolanahi dela, Jatetxe, Festa Areto, Kafetegi Taberna, Hotel, Egoitza, Polikiroldegi, Kasino jardueretarako kuota finkoak kasu guztietan aplikatuko dira, hondakin unitate sortzaile bakar batean sarturik egon arren.

2. Iruñerriko Zerbitzuak SAko ikuskatzaileek alde aurretik konprobatutakoan, tarifak, kuotak, erabilpena eta ordaintzaileak aldatu ahal izanen dira, hauek errealtateari egokitu ez edota erabilpen edo balio katastralik atxikirik ez duten kasuetan, konprobaturiko erabilpen erreala faktura dadineko moduan. Higiezinaren erabilpen aldaketa egiaztatuko balitz, moldaketa atzerako ondorioz egin liteke, erabilpen aldaketa ziurtatzen den momentutik alegia. Era berean, ordaindu behar duen obligaziodunak, edozein kasutan, Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietateari jakinarazi behar dio higiezinaren erabilerekin lotutako edozein aldaketa.

3. Ezarpena dagokien higiezinaren kasuan, baldin eta bilketa tokitik 300 metro baino urrutiago egon edota iristeko edo maniobra egiteko zailtasunik badago, Ikuskapen Zerbitzuek iritzia eman eta gero, aplikatuko den tarifa soilik kuotaren oinarriari dagokion tarifa aldakorra izanen da. (I. Eranskina).

4. Erregimen orokorreko Gehieneko Kuota (7.1 art. 1 lerroaldea) 4.159,98 euro izanen da.

I. HHTZ-KO HONDAKINEN TRATAMENDU ZERBITZUAREN ERABILPENA.

Paper eta kartoi besterik ez duten hondakinaren tratamendua	11,79 euro/Tm.
Plastiko estalki-ontziak besterik ez diren hondakinaren tratamendua	11,79 euro/Tm.
Beira estalki-ontziak besterik ez diren hondakinaren tratamendua	11,79 euro/Tm.
Metal hutsez osatutako hondakinaren tratamendua.	11,79 euro/Tm.
Egur hutsez osatutako hondakinaren tratamendua	46,95 euro/Tm.
Hondakin onargarriak isurtzea, aurrekoak salbu	66,96 euro/Tm.
Gaikako bilketa edo ontzien gaikako bilketak dituzten toki-erakundeetatik datozen hondakinak	80,65 euro/Tm.
Erabilitako pneumatikoak, diametroa 1.400 mm baino handiagoa dutenak	801,68 euro/Tm.

J. HONDAKINAK ONARTZEA HHTZ-KO GARBIGUNEAN.

OBRA TXIKIETAKO ERAIKUNTZA HONDAKINAK	Gehieneko kantitatea, kuotarik gabe	Kuota, gehieneko kantitatea
---------------------------------------	-------------------------------------	-----------------------------

		gainditzen bada (unitateko edo unitate frakzioko)
Leihoak	2 unit./emate/egun	67,10 euro/tm
Obra hondakin garbiak	200 kg/emate/egun	26,14 euro/tm
Zura	100 kg/emate/egun	46,95 euro/tm
Fibrozementua	25 kg/emate/egun	557,00 euro/tm
Igeltsoak, eskaiolak	100 kg/emate/egun	110,00 euro/tm
Koltxoak	1unit./emate/egun	64,44 euro/tm
Sailkaezinak diren beste material batzuk	100 kg/emate/egun	64,44 euro/tm

K. HILDAKO ANIMALIEN JASOKETA, GARRAIOA ETA DEUSEZTAPENA

160,32 euro/animalia.

L. LURPEKO EDUKIONTZIAK.

Urteko kostua honako formularen bitartez zehaztuko da kasu bakoitzean, plataforma jasotzaile bakoitzerako kalkulaturik:

Kostua = 271,94 euro (Fv + Fe + Fc + Fp)

Fv: Maiztasuna, organikoa - gainerakoa frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia.

Fe: Maiztasuna, ontzi frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia.

Fc: Maiztasuna, beira frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia.

Fp: Maiztasuna, Paper-kartoi frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia.

M. DESPOPULATZEKO ARRISKUAN DAUDEN UDALERRI ETA KONTZEJUETARAKO KUOTA BEREZIA

Despopulatzeko muturreko arriskuko edo arrisku biziko baldintzak betetzen dituzten udalerrietan kokatuta dauden higiezinetan, I. eranskineko 2., 3., 4., 4.1, 5. eta 6. taldeetako erabileretarako 3.1. artikuluko zerbitzuei aplikatzekoak zaizkien tarifei dagokien kuota osoa (III. eranskinean definitutakoak) izango da oro har aplikatzekoa den kuotaren %50 aplikatzearen emaitza den kantitatearen baliokidea.

II. ERANSKINA

UDALEZ UDALEKO KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEA 4. ERABILPEN KODEARI (ETXEBIZITZA) APLIKAGARRIA

Adios.....	0,77
Antsoain.....	0,69
Añorbe.....	0,87
Anue.....	0,78
Aranguren.....	0,67
Atetz.....	1,16
Barañain.....	0,69
Basaburua.....	0,94
Beraskoain.....	0,92
Beriain.....	0,77
Berribeiti.....	0,68
Berriozar.....	0,72
Bidaurreta.....	0,78
Biurrun-Olkotz.....	0,88
Burlata.....	0,74
Ziritza.....	1,32
Zizur.....	0,69
Etxarri.....	0,86
Eguesibar.....	0,68
Eneritz.....	0,72
Esteribar.....	0,76
Etxauri.....	0,79
Ezkabarte.....	0,78
Galar.....	0,72
Gofi.....	2,15
Girgillao.....	0,89
Uhartea.....	0,71
Imotz.....	0,78
Itza.....	0,77
Txulapain.....	0,76
Lantz.....	1,26
Legarda.....	0,93
Muruzabal.....	0,82
Noain (Elortzibar).....	0,73
Odieta.....	0,82
Olaibar.....	1,22
Oltza Zendea.....	0,75
Olo.....	1,68
Orkoien.....	0,74
Iruña.....	1,00
Tebas-Muru Artederreta.....	0,99
Tirapu.....	1,61
Ukar.....	0,74
Ultzama.....	0,78
Uterga.....	0,82
Atarrabia.....	0,67
Zabaltza.....	0,76
Zizur Nagusia.....	0,68

1 baino koefiziente zuzentzaile altuagorik ez da aplikatuko, baldin eta higiezinaren katastro balioa, 2024ko urtealdirako, 48.767,40 euro baino altuagoa bada.

2024ko ekitaldian balorazio txosten berri batek indarra hartzen badu, katastroko balioak aldatu diren neurri berean egokituko da udalerrri horretako koefiziente zuzentzailea.

III. ERANSKINA

DESPOPULATZEKO MUTURREKO ARRISKUAN EDO ARRISKU BIZIAN DAUDEN UDALERRIAK ETA KONTZEJUAK

I.I.M eranskinean jasotako hobariak aplikatzeko eraginetarako, despopulatzeko muturreko arriskuan eta arrisku bizian dauden udalerri eta kontzejutat jotzen dira kilometro koadroko 25 biztanletik beherako biztanleria-dentsitatea dutenak.

Informazioa emate aldera, hauek dira:

- Argiñaritz (Girgillao)
- Anue
- Atetz
- Basaburua
- Goñi
- Imotz
- Lantz
- Olló
- Tirapu

Une bakoitzean aplikatzekoa den indarreko zerrendak ordeztuko du udalerrien eta kontzejuen zerrenda hori, despopulatzeko arriskua duten eremuen mapan ondoz ondo sartzen joango diren aldaketak kontuan harturik.